

## Europako gazteria-proiektuen diseinua eta kudeaketa. Jorge Saezi elkarrizketatxoa, Donostiako Eurodesk eta Europe Direct zentroko teknikaria

### ERASMUS+GAZTERIA eta EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA programen berrikuntzak 2021-2027 Europako diru-laguntzen esparruan



#### **Zergatik dira hain garrantzitsuak ekimen hauek gazteentzat?**

Programa hauek gazteei laguntzen diete deskubritzen, ikasten, eboluzionatzen eta garatzen, pertsonalki eta profesionalki. Bizi-esperientzia oso aberasgarriak eta bakarrak dira, gazteei beren gaitasunak garatzen edo hobetzen laguntzen dietenak; beste pertsona batzuei laguntzen dieten bitartean, proiektu solidarioetan laguntzen dute edo gazte-ekimenetan parte hartzen dute. Ikaskuntza-zerbitzuko programen eredua.

#### **Pandemia dagoen une honetan, mugikortasuna nahiko mugatuta dago. Murriztu egin da proiektuen kopurua?**

Egia da, herrialdeen arteko mugak direla-eta, taldeko mugikortasun-proiektu asko atzeratu egin direla, hala nola gazte-trukeak edo gazte-langileen prestakuntzak. Beharbada, 2021eko udaberrian hasiko dira garatzen joan den udan ezarriko ziren ekintzak. Hala ere, Europako Elkartasun Kidegoaren boluntariora-proiektuetan, banakako mugikortasunak direnez, proiektu batzuk murriztu egin dira, baina beste batzuk mantendu egin dira. Jakina, Europako Batzordeak programa horietan ezarritako parte-hartzaileen jardueren kalitate- eta segurtasun-neurriak bermatzen dituztenak, baita Covid19 agertu aurretik ere.

#### **Nola aurkezten da 2021etik aurrerako gazteentzako mugikortasun-programa europarren aldi berria?**

Etorkizun handikoa. Urte anitzeko esparru berri bat estreinatuko dugu. Aurrekontuek nabarmen egiten dute gora ekintza guztietan. Ekintza horietan guztietan parte har dezaketen gazteei aukera gehiago eskainiz, ahal izanez gero. Beraz, aprobeixatu egin beharko dira.